

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zure ingurua aprobetxatuta

- ✓ **Aztertu zure inguruko iragarkiak**, hainbat hedabidetan ageri direnak (Internet, telebista, kaleko publizitatea...). Ba al da bereziki gustatzen zaizun iragarkirik? Edo, aitzitik, ba al da bereziki gorrotatzen duzunik? **Deskribatu ikaskideei** ahalik eta zehatzen, eta, gustuko iragarkiaren kasuan, **azaldu zergatik duzun gustuko** eta **gomendatu ikustea**; gorrotatzen duzun iragarkiaren kasuan ere azaldu zergatik ateratzen zaituen zeure onetik.
- ✓ Kontsumobidek, Kontsumoko Euskal Institutuak, publizitatearen inguruko tailerrak egiteko aukera eskaintzen du. Anima zaitetz eta proposatu ikaskideei taldean horietako bat egitea. Baietz primeran pasatu eta publizitate-kontuetan aditu bihurtu!

Internet eta bestelako hedabideak erabilia

- ✓ Bada euskaraz sortutako [publizitatearen inguruko blog interesgarri bat](#), Iñigo Fernandez Ostolazak zuzentzen duena. Sartu, eman begiratu bat eta kontatu ikaskideei zer iruditu zaizun.
- ✓ Kike Amonarrizek aurkeztutako [Tribuaren berbak](#) saioak saio bat eskaini zion publizitateari. Ikusi arretaz eta egiezu ikasleei ideia nagusien laburpena.

